

ZINEBI NETWORKING

ZINEMA DOKUMENTALAREN BILBOKO IX. FORO PROFESIONALA

2026

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

A. ALDERDI OROKORRAK ETA FOROAREN XEDEA

1. Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionala, ZINEBI Networking 2026, zinema dokumentalean sortzen ari den sorkuntza sustatzera bideratuta dagoen ekimena da, baita ikus-entzunezkoen ekoizpena bultzatzera eta harremanak dinamizatzen ere, sektoreko eragileen eta industria zinematografikoko eta ikus-entzunezko industriako tokiko zein nazioarteko erakundeen artean. ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren 68. edizioaren esparruan egingo da, 2026ko azaroaren 23tik 26ra.
2. Jarduera horren bidez, ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak proiektu dokumental, sortzaile eta independenteen garapena bultzatzeko konpromisoari eusten dio; sormenerako, hausnarketarako, aholkularitzarako eta zinemagileen lanari —proiektu baten garapenak berekin dakartzen sorkuntza, produkzio, finantzaketa eta lege alderdiekin laguntzea barne— bultzada emateko espazioak eraikitzeko konpromisoari, eta, azkenik, honakoek elkarren artean topo egiteko dinamikak bultzatzeko konpromisoari: sortzaileak, ekoizleak, eta enpresa eta profesionalen belaunaldi berrien ekoizpen zinematografikoa eta nazioarteko proiektzioa babesten duten sektoreko gainerako eragile eta erakundeak. ZINEBIk, Foroaren bidez, parte hartzaileen eta profesionalen eta adituen arteko harremana erraztu nahi du; izan ere, azken horiek baitira parte hartzaileei beren proiektuak arrakastaz garatzeko eta produzitzeko moduari buruzko aholkularitza emango dietenak.
3. ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak antolatutako IX. Foroak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, EITB MEDIAREN, Radio-televisión Españolaren, Zineuskadiren eta Europa Creativa Desk Media Euskadiren babesa du.

B. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA KONPROMISOAK

1. ZINEBI NETWORKING 2026 zabalik dago egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako Estatuan duten ekoizle eta zuzendarientzat.
2. Zuzendari edo zuzendaritza talde bakoitzak proiektu bakarrekin eman dezake izena, baina horrek ez du eragozten produkzio-etxe berak proiektu bat baino gehiagoren izena eman ahal izatea.
3. Izena ematen duten filmek film luzeak izan behar dute, dokumentalak edo ez-fikziozkoak, eta oso aurreratuta edo produkzio fasean egon behar dira. Film luzetat hartuko dira 60 minutu edo gehiagoko iraupena duten film zinematografikoak. Ez dira onartuko amaituta dauden lanak, postproduktzioa master digitala egin edo lortu aurretik burututa dutenak, izena emateko epea amaitu baino lehen jendaurrean erakutsi direnak, edo nazionalitatea eta adinaren arabera kalifikazio-ziurtagiria eskatu dutenak.
4. Proiektuarekin izena ematen denean, arduradunek beren erantzukizunpean adierazten dute proposamena jatorrizkoa dela eta ez duela hirugarrenen plagiorik, usurpaziorik edo eskubideen urraketarik egiten.
5. Parte hartzaileek konpromisoa hartzen dute antolatzaileek eskatzen dieten dokumentazio guztia bidaltzeko.

C. IZENA EMATEKO EPEA ETA MODUA

1. Izena emateko epea 2026ko ekainaren 25etik irailaren 9ra arte egongo da zabalik, biak barne.
2. Parte hartzeak ez dakar inolako izen emate gasturik.
3. ZINEBI NETWORKING 2026en parte hartu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek web formularioaren bidez eman



behar dute izena nahitaez, oinarriak onartzen dituztela adieraziz eta formularioan eskatzen diren datu pertsonalak zehaztuz.

4. Izena emateko formularioa bete eta bidali ondoren, oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa honako helbide elektronikora bidali behar da: networking@zinebi.eus

D. DOKUMENTAZIOA

Izena emateko web formularioa bete ondoren, jarraian adierazten diren dokumentuak bidali behar dira, PDF formatuko dokumentu bakarrean (izartxo batez markatutako atalak nahi-taezkoak dira):

I. **Garatzen ari diren filmen kasuan:**

1. Proiektuaren fitxa teknikoa eta artistikoa *
2. Sinopsia gaztelaniaz eta ingelesez (gehienez 600 karaktere) *
3. Proiektuaren teaserra ingelesez azpigitulaturatuta (gutxienez 4 minutuko iraupena), prest izanez gero. Azkenean proiektua Foroan parte hartzeko hautatzen badute, arduradunek konpromisoa hartzen dute teaser hori amaituta edukitzeko, Foroan zehar jendaurrean aurkeztu ahal izateko.
4. Filmaren asmoen, produkzioaren garapenaren eta garapen artistikoaren berri ematen duen oharra, honako hauek adieraziz: eman beharreko urratsak, filmaren garapenari buruzko zalantzak eta ZINEBI Networking, Zinema Dokumentalaren Bilboko Foro Profesionalean jorratzea interesatuko litzaizkiokeen alderdi zehatzak (gehienez 2.100 karaktere) *
5. Proiektuaren azalpen-memoria (gehienez 3.500 karaktere) *
6. Egin nahi den proiektuaren proposamen estetiko eta artistikoa *
7. Proiektuaren aurrekontu orokorra eta xehatua (ahal izanez gero, ICAAren formatuarekin) *
8. Kronograma eta produkzio-plana *
9. Finantzaketa-plana *
10. Gidoia edo tratamendua
11. Obraren zuzendaritzaz arduratzen diren pertsonen biografia eta filmografia, gaztelaniaz eta ingelesez *
12. Obraren produkzioaz arduratzen diren pertsonen biografia laburra, gaztelaniaz eta ingelesez *
13. Zuzendaritzaren arduradunek aurretik egindako lanetarako estekak *

II. **Amaiera fasean dauden filmen kasuan:**

1. Proiektuaren fitxa teknikoa eta artistikoa *
2. Sinopsia gaztelaniaz eta ingelesez (gehienez 600 karaktere) *
3. Proiektuaren teaserra ingelesez azpigitulaturatuta (gutxienez 4 minutuko iraupena). *

4. Filmaren mozketaren azken bertsiorako esteka, gutxienez 60 minutuko iraupena eta gehienez 120 minutukoa.*
5. Filmaren asmoen, produkzioaren garapenaren eta garapen artistikoaren berri ematen duen oharra, honako hauek adieraziz: eman beharreko urratsak, filmaren garapenari buruzko zalantzak eta ZINEBI Networking, Zinema Dokumentalaren Bilboko Foro Profesionalean jorratzea interesatuko litzaizkiokeen alderdi zehatzak (gehienez 2.100 karaktere). *
6. Filmaren aurrekontu orokorra eta xehatua (ahal izanez gero, ICAAren formatuarekin)*
7. Kronograma eta filma amaitzeko plana. *
8. Obraren zuzendariaren edo zuzendarien biografia eta filmografia, gaztelaniaz eta ingelesez. *
9. Obraren produktorearen edo produktoreen biografia laburra, gaztelaniaz eta ingelesez. *

E. HAUTAKETA PROZESUA ETA IRIZPIDEAK

1. Aurkeztutako proiektuen artean, hautaketa batzorde batek, Jaialdiaren zuzendaritzarekin batera, aukeratuko du zer proiektu aurkeztu diren, 2026ko azaroaren 23tik 26ra bitartean, Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalean.
 - **Garatzen ari diren filmen** atalerako, gehienez 7 proiektu aukeratuko dira. Bi lurralde eremuetako bakoitza –Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainiako Estatuko gainerako autonomia erkidegoa– ezin da 4 proiektu baino gehiagotan ordezkaturatuta egon.
 - **Amaiera fasean dauden filmen** atalerako, gehienez 4 proiektu aukeratuko dira. Horietatik, gehienez ere 2 proiektu hautatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako produkzio-etxeetatik, eta gehienez 3 proiektu Espainiako Estatuko gainerako herrialdeetan kokatutako produkzio-etxeetatik. Kategoria horretan hautatutako proiektuen guztizko kopurua ez da inola ere 4 baino handiagoa izango.
2. Proiektuen hautaketa horretan, aintzat hartuko dira proiektu bakoitzaren ideia, proposamen estetiko, bideragarritasun ekonomikoa eta gauzatzeko aukerak. Hautaketa hori posta elektronikoz jakinaraziko zaie proiektu bakoitzeko produktoreei, baita haren zuzendaritzaren arduradunei ere, 2026ko urrian zehar.

F. DINAMIKA

1. Parte hartzen duten proiektu guztien ordezkariak tutoretza pertsonalizatuko saio bat izango dute, sektoreko profesional baten bermearekin. ZINEBI NETWORKINGen jardunaldi-tan zehar, antolatzaileek ezarritako topaketetara joango dira, pitch edo proiektuaren aurkezpen publikoa egingo dute, eta berriaz antolatutako buruz buruko saioetan ere parte hartuko dute, proiektuari buruzko aholkularitza jasotzeko.

2. Amaiera fasean dauden filmen atalean hautatutako filmak Foroari aurkeztutako mozketaren proiektio pribatu batean sartuko dira. Proiektio hori ZINEBI Networking-en lanerako saioen parte da, eta aholkulariei, mentoreei, Foroan dauden beste film batzuetako ordezkarietara eta epaimahaikideei mugatuta egongo da.
3. Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionala, ZINEBI Networking 2026, amaitu ondoren, antolatzaileek konpromisoa hartzen dute jarraipenerako online topaketak egiteko 2026. urteko gainerako hilabeteetan eta 2027. urtean zehar, hautatutako proiektuei laguntzeko eta aholkularitza emateko.

G. PARTE-HARTZEA ONARTZEA

1. Esleipena egiten denetik zenbatzen hasita, hautatuek 5 egun balioduneko epea izango dute foroko parte-hartzea onartzeko. Hautatutako proiektu guztiek oinarrien onarpena adierazten duen akordio bat sinatuko dute azken hautaketa iragarri ondoren; horrez gain, oinarrietan ezarritako konpromisoa eta betebeharrak buruzko zinpeko aitortpen bat sinatuko dute.
2. Hautatutako proiektu bakoitzeko, ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren antolatzaileek honako gastu hauek hartuko dituzte bere gain produktorearentzat eta zinemagilearentzat:
 - Bilborako joan-etorriko garraioaren kostuak, Espainiako Estatuko edozein lekutatik.
 - Ostatua eta dietak
 - ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko 68. jaialdiko proiektio guztietara joateko akreditazio balioduna.
3. Lankidetzarako eta sarean egiten den Foro batek dakartzan premia eta aukera generikoez harago, hautatutako proiektu bakoitzak honako konpromiso hauek hartzen ditu Foroarekin:
 - Proiektua Foroan parte hartzeko hautatutako beste hiru proiektutako arduradunekin partekatzeko baimena ematea.
 - Antolatzaileek eskatzen dutenean, Foroak buruz buruko bilera presentzialetan hautatutako beste hiru proiektu kontrastatzen laguntzea. Horretarako, antolatzaileek parte hartzaileei proiektu horiek irakurtzeko eskatuko diete, behar adina aurreikuspenarekin.

H. EPAIMAHAIA ETA SARIAK

1. Epaimahaia ZINEBIko zuzendaritzak izendatuko du eta industria zinematografikoko profesionalen eta adituz osatuta egongo da, eta hura arduratuko du zuzendari eta produktoreei aholkularitza eskaintzeaz, bai aurkezpenak egin ondoren, bai buruz buruko bileretan. Sariak ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren itxiera galan banatuko dira, azaroaren 27an, Arriaga Antzokian. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da:

- 1.1. ZINEBI NETWORKING 2026 Euskadi saria
Epaimahaia hautatutako Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako pertsona fisiko edo juridikoen ekoiztutako proiektuek 10.000 euroko saria jaso ahal izango dute. EITBk ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalen parte hartzen du, ZINEBI Networking 2026 Euskadi Saria bultzatuz, euskal talentua sustatzeko, proiektua garatzen lagunduz. Helburu horrekin, proiektua garatu ondoren, irabazleak ustiapen-eskubideak lagatzeko dagokion kontratua sinatuko du EITBekin, lagapenaren baldintzak zehazteko. Kontratu horretan, gutxienez, free tv linealeko 3 emanaldi hartuko dira barne, bai eta hiru hilabeteko leiho bat ere, EITBren webgunearen eta plataformen bidez interaktiboki eskuragarri jartzeko. Proiektua garatzen amaitu ondoren, EITBko proiektuen balorazioarako batzordeak hala baderitza, ekarpen hori handitu egin daiteke eskubideen lagapenaren irismena handitzearen truke.
- 1.2. ZINEBI NETWORKING 2026 Estatuko saria
Egoitza Espainiako Estatuan –Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo– duten pertsona fisiko edo juridikoen produktutakoak diren, eta Epaimahaia hautatutakoak diren proiektuek 10.000 euroko saria jasotzeko aukera izango dute.
- 1.3. ZINEBI NETWORKING 2026 RTVE saria
Garatzen ari diren filmen atalean hautatutako proiektu guztiek 10.000 euroko saria jasotzeko aukera izango dute, alde batera utzita Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan egoitza duten pertsona fisikoek edo juridikoen ekoiztutakoak diren.
- 1.4. ZINEBI NETWORKING 2026 ECAM saria
Madrilgo Erkidegoko Zinematografia eta Ikus-entzuzkoen Eskolak (ECAM) hautatutako proiektuetako bat aholkularitza juridiko espezializatuko zerbitzu batekin sarritu du, proiektuaren garapen eta produktiorako, ECAM-Mek zehaztutako baldintzetan.
2. Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalaren, ZINEBI Networkingen, antolatzaileek beretzat gordetzen dute Foroan parte hartzen duten proiektuentzako sari gehiagorako aukera.

I. HAUTATUTAKO PROIEKTUEN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

1. Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalen hautatutako proiektuetako parte hartzaileek programako jardueran presentzial eta onlineko guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, baita Foroa egiten den egunetan Bilbon presentzialki egotea ere, behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik. Posible ez bada, antolakuntzak beretzat gordetzen du ordezkari bat proiektu bat gonbidatzeko eskubidea.
2. Parte hartzaileek antolatzaileek dagokion katalogoa, eskuko programa, web orria, sare sozialak eta abar egiteko eskatzen dizkieten informazioa eta sustapenerako materialak eman behar dizkiete, eta berariaz baimenduko dute horiek hedatzea, Jaialdiaren eta Foroaren jardueren berri emateko.

3. Foroan parte hartu duten eta azkenean garatu diren lanek nahitaez jaso beharko dute filmaren amaierako kredituetan proiektuak ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko Foro Profesionalaren laguntza jaso zuela, "ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalean hautatutako proiektua" hitzekin eta antolatzaileek ematen dizkieten logotipoekin. Halaber, parte hartzaileek konpromisoa hartzen dute, ahal den neurrian, parte hartze hori jakinarazpen publiko eta publizitario orotan aipatzeko, baita haien ingurune, komunitate, kartel, presskit, prentsa-ohar, sare sozial, webgune, sustapenerako material, eta gainerako euskarri fisiko eta digitaletan ere.
4. ZINEBI Networking, Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalaren sariak jasotzen dituzten lanek honako hauek jaso beharko dituzte, halabeharrez, hasierako kredituetan: "ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionaleko proiektu irabazlea", Foroaren antolatzaileek ematen dizkieten logotipoekin batera. Halaber, proiektu irabazleek konpromisoa hartzen dute parte hartze hori jakinarazpen publiko eta publizitario orotan aipatzeko, baita haien ingurune, komunitate, kartel, presskit, prentsa-ohar, sare sozial, webgune, sustapenerako material, eta gainerako euskarri fisiko eta digitaletan ere.
5. Behin film luzeak amaituta, proiektu irabazleek konpromisoa hartzen dute ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiari amaierako lana modu pribatuan ikusteko esteka bat eskaintzeko, lehen aldiz jendaurrean jarri aurretik.
6. Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak, ZINEBIk, proiektu irabazleen jarraipena egingo du, eta Jaialdiko etorkizuneko jardueretan edo sailetan parte hartzeko aukera baloratuko du, edizio bakoitzean aplikatu beharreko programazio-irizpideen arabera.
7. Hautatutako proiektuek parte-hartze agiri bat jasoko dute ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalaren eskutik.

J. PROGRAMA ATZERATZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA. OINARRIAK ALDATZEA

1. ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak beretzat gordetzen du ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionala oso-rik edo zati batean eteteko, atzeratzeko edo bertan behera uzteko eskubidea, ezinbesteko arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, eta etete, atzeratze edo bertan behera uzte horrek ez dio inolako erantzukizunik ekarriko ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiari, zeinak ahal bezain laster egingo baitie jakinarazpena parte hartzaileei.
2. Halaber, ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak esku artean dituzun oinarriak osorik edo zati batean aldatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, baita oinarriontzako eta arauentzako salbuespen zehatzak ezartzeko eskubidea ere, ezinbesteko arrazoiengatik edo ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionala, behar bezala garatzeko guztiz beharrezkoa denean, behar bezala arrazoiutako kausak direla

eta. Esku artean dituzun oinarri hauek aldatuz gero, ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak egoera horren berri emango du, honako hauek zabaldu edo argitaratzeko baliatu dituen bitarteko berberak erabiliz.

K. IRUDI-ESKUBIDEAK

1. Parte hartzaileek baimena ematen diete ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren antolatzailea den Arriaga Antzertia Kultur Ihardueretako erakundea S.A.ri eta Bilboko Udalari, bai eta horiek baimendutako hirugarrenei ere, beren irudia, ahotsa, izen-abizenak (eta, hala badagokio, izen artistikoa), argazkia, erretratua eta irudi fisikoa, hautemangarri egiten duen edozein bitarteko grafiko, tekniko edo artistikoren bidez erreproduzitu edo sortutakoa, jasotzeko, finkatzeko edo erreproduzitzeko; biografia, espediente profesionala eta identifikazio pertsonalerako gainerako datuak edo elementuak ere barne hartuko dira (aurrerantzean, hori guztiari buruz hitz egiteko "Irudia" erabiliko da).
2. Irudia jasotzeko eta erabiltzeko baimena proiektuaren eta, ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalaren garapena dokumentatzeko eta sustatzeko ematen da, legeak baimendutako gehieneko eperako, eta mundu osoan, eta edozein ustiapen-modalitatearen, euskarriren, formaturen edo hedapenerako bideren bitartez egin ahalgo da. Aurreko baimenean berariaz jasotzen da irudia jaso ahal izatea ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalean parte hartzen duen bitartean, bai eta ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiarekin lotutako mota guztietako jarduera eta ekitaldietan ere (hala nola, berariaz adieraztearren, argazki saioak, jendaurreko aurkezpenak, prentsaurrekoak, etab.).

L. DATU PERTSONALAK BABESTEA.

1. Tratamenduaren arduraduna: ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia. Arriaga Antzertia Kultur Ihardueretako erakundea, S.A. Erakundearen egoitza soziala: Arriaga plaza 1, 48005 Bilbo / Bizkaia. IFK: A48211205. DBOrekin harremanetan jartzeko: informacion@teatroarriaga.eus.
2. Tratatu beharreko datuak: eskabideak aurkezteko formularioan jasotakoak, atxikitako dokumentuak eta ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalaren antolatzaileei proiektuak hautatzeko prozesuan ematen zaion informazio guztia.
3. Tratamenduaren helburua: sariak emateko eta ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionala behar bezala garatzeko kudeaketa.
4. Erabaki automatizatuak: ez da profilen segmentaziorik egingen, ezta erabaki automatizaturik hartzen ere.
5. Eskabideen datuak ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalaren hautaketa prozesuak eta/edo garapenak irauten duen bitartean gordeko dira. Epe hori igaro ondoren, datuak blokeatuta mantendu

ahal izango dira, baldin eta antolatzaileen legezko bete-beharrak betetzeko beharrezkoa bada.

6. Hartzailak: antolatzaileak eta Epaimahaia osatzen duten kideak, baita profesional independenteak eta Bilboko Udaleko kideak ere.
7. Eskubideak: ZINEBI Networking Zinema Dokumentalaren Bilboko IX. Foro Profesionalarekin lotura duen edonork eskubidea du ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia bere datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez baieztatu diezaioten. Interesdun gisa, zure datu pertsonaletara sartzeko eskubidea duzu, baita datu okerrak zuzentzeko eskatzeko edo, hala badagokio, datuak ezabatze eskatzeko eskubidea ere, besteak beste, jasotako helburuetarako beharrezkoak izateari utzi badiote.
8. Inguruabar jakin batzuetan, zure datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango duzu; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez dira gordeko.
9. Inguruabar jakin batzuetan, eta zure egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik, zure datuen tratamenduaren aurka egin ahal izango duzu. ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak datuak tratatzeari utziko dio, ezinbesteko arrazoi legitimoak daudenean, edo erreklamazio posibleak egin edo defendatu behar direnean izan ezik.
10. Zure datuen tratamendua zure baimenean oinarritzen bada, edozein unetan ezeztatu ahal izango duzu.
11. Legez egokia den kasuetan, datuen eramangarritasunerako eskubidea izango duzu, eta horrek esan nahi du eskubidea

duzula zuri buruzko datu pertsonalak, ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialditik tratatzen ari direnak, jasotzeko eta zure gailu batean gordetzeko. Eskubide horrek aukera ematen dizu, halaber, ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiari zure datuak tratamenduaren beste arduradun bati jakinaraz diezazkion eskatzeko.

12. Zure datuen tratamenduari buruzko edozein konturako, bai eta egindako datuen tratamenduari buruz ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiari helarazi nahi diozun gorabehera edo komunikazioren bat baduzu, networking@zinebi.eus helbidera ere jo dezakezu. Horretarako, zure NANaren kopia bat edo zure eskubideak baliatzeko legez identifikatzen zaituen beste agiriren bat atxiki beharko duzu.

M. GATAZKAK EBAZTEA

Esku artean dituzun oinarrien interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak eta oinarrien aplikaziotik sor daitezkeen gatazkak ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren antolatzaileek ebatziko dituzte.

N. HARREMANETARAKO DATUAK

Oinarriei buruzko edozein zalantza argitu nahi izanez gero, jarri harremanetan networking@zinebi.eus helbidean.